

IRAUPEN
LUZEKO ZAINKETAK
PERTSONALIZATZEKO
JARDUNBIDE EGOKIEN
AINTZATESPENAK



NARRIADURA KOGNITIBOA DUTEN
PERTSONEN ETA HAIEN FAMILIA ETA/
EDO HURBILEKO PERTSONEN ARTEKO
HARREMAN BERRIAK AURKITUZ, ARRETA
PERTSONALIZATUAREN BIDEZ
ASPALDIKO EGOITZA. ASPALDIKO FUNDAZIOA

B ARDATZA: EGUNEROKO BIZITZA HARREMAN, JARDUERA ETA ERRUTINA ESANGURATSUEKIN

1. DESKRIBAPEN LABURRA

Aurkeztutako jardunbide egokia **familia bisitei beste zentzu eta esanahi bat emateko** beharretik sortzen da, **harreman, estimulazio eta lagun egiteko gune bihurtzeko**.

Proiektu pilotuak funtsezko hiru dimentsio biltzen ditu:

1. **Familien parte hartze aktiboa** zaintza eta laguntasunaren eragile gisa, bisitari roletik harago.
2. **Jarduera esanguratsuak eta zentzua dutenak, egokituak**, Bizi Historietatik abiatuta diseinatuak, eta memoria, emozioak eta loturak estimulatzerako bideratuak (adibidez: oroitzapen kutxak, musika, tailer sentzorialak, askari partekatuak).
3. **Metodologia egituratua eta errepikagarria**, asteko saio programatuekin, informazio karteekin eta bertaratze, parte hartze eta gogobetetze erregistro sistematikoekin.

Eredu horrek bermatzen du narriadura kognitiboa duten egoiliarrek **lotura familiarren jarraitutasuna mantendu, beren nortasuna zaindu eta zentzua duten esperientzietan parte hartu** ahal izatea, baita narriadura kognitibo larriko egoeretan ere.

Praktikak erakusten du, plangintza arduratsu, ireki eta malgu baten bidez, familiak zaintzaren aliatu estrategiko bihurtu daitezkeela, arreta ereduaren **dimentsio erlazionala, komunitarioa eta prebentiboa** indartzeko.

Garatutako pertsonalizazio printzipioak

- **Pertsonan Oinarritutako Arreta Integrala (POAI)**: duintasuna, eskubideak, autonomia eta tratua ona ardatz gisa.
- **Familiaren parte hartze aktiboa**: familiak Bizi Historien eta Arreta eta Bizitza Planen kosortzaile gisa.
- **Zaintza erlazionala**: lotura afektiboak ongizatearen euskarri gisa.
- **Prebentzioa eta ongizate emozionala**: bakardadea murriztea eta kide izatearen zentzua sustatzea.
- **Berrikuntza metodologikoa**: saio egituratuak, eta oroitzapenen, objektuen eta egokitutako jarduerak erabiltzea, komunikaziorako zubi gisa.



2. JARDUNBIDE EGOKIAREN GARAPENA

Abiapuntuko egoera eta antzemandako beharrak

Narriadura kognitiboa zuten pertsonekin, familia bisitak **espazio mugatuak eta gutxi egituratuak** izaten ziren kasu askotan. Familiek ingurukoekin **komunikatzeko zailtasuna** adierazten zuten, narriadura kognitiboa eta konduktuala zela eta, eta horrek etsipena, ezintasun sentimendua eta deskonexio bizipena sortzen zituen.

Hauek izan ziren identifikatutako beharrak:

- Familiei **baliabide eta espazio gidatuak** ematea, interakzio esanguratsua errazteko.
- Bisitak egoiliarrentzako eta senideentzako **esperientzia aberasgarri** bihurtzea.
- **Sentitzen den bakardadea murriztea** eta nortasun pertsonala indartzea, biografiari lotutako jardueren bidez.
- **Familien eta profesionalen arteko aliantza** indartzea, helburuak eta metodologiak partekatuz.

Mugarri esanguratsuak

Proiektua **narriadura kognitibo larria duten pertsonen eta haien familiei eta/edo hurbilekoei** zuzentzen zaie, hainbat hilabetetan zehar **programatutako 16 saio**ko ziklo baten bidez. Saio horiek ikaskuntza, laguntza eta esperientzia partekatuak uztartzen dituzte, familiek jardura gidatuen esparrutik kanpo ere senidearekin interakzioan aritzeko tresnak eskuratzeko.

1. FASEA: DISEINUA

- **Saioen egutegi** bat egitea, eta astero kartel irisgarrien bidez zabaltzea.
- Profiletara **egokitutako dinamikak** hautatzea: bizi historiak, oroitzapen kuxkak, estimulazio sensoriala, argazkiak, pintura, psikomotrizitatea, askari partekatuak.
- **Ebaluazio tresnak** definitzea: bertaratzearen erregistroa, parte hartzearen behaketa sistematikoa eta familien gogobetetze galdetegiak.

2. FASEA: INPLEMENTAZIOA

- Talde teknikoak gidatutako **asteroko saioak** garatzea (gizarte hezitzailea, psikologoa), erreferentziazko laguntzaileen parte hartze aktiboarekin.
- **Malgutasun metodologikoa**: jarduerak pertsona bakoitzaren egoera fisiko, kognitibo eta emozionalaren arabera egokitzea.
- **Familiei eta hurbilekoei laguntzea**, interakziorako eta espektatiben zentzua berritzeko estrategiak eskainiz ("jardura ondo egitetik topaketaz goatzera" igarotzea).

3. FASEA: TARTEKO EBALUAZIOA

- **Hainbat taldetan parte hartzearen** azterketa konparatiboa, oztopoak identifikatu eta metodologia doitzeko.
- **Objektu pertsonalak eta bizi historia** txertatzea, komunikazio eta lotura emozionaleko detonatzailerak gisa.

4. FASEA: KONTSOLIDAZIOA ETA ITXIERA

- Familiei eta profesionalen **aurretiazko emaitzak** aurkeztea.
- **Ebaluazio kuantitatiboa**: gogobetetze, erabilgarritasun eta edukiari buruzko galdetegiak, 5etik 4,3 eta 5 arteko batez besteko puntuazioarekin.
- **Ebaluazio kualitatiboa**: familien testigantzak, esaterako, esperientzia "hainbeste denboraren ondoren aita irribarre batekin berriz ikusteko" aukera gisa deskribatzen dutenak.

**Proiektuaren pertsonalizazioaren benetako adibideak**

- **Oroitzapen kutzak:** saio batean, alaba batek amaren haurtzaroko objektu bat entregatu zuen. Ezagutu zuenean, egoiliarrek irribarre egin eta abesti bat kantatu zuen, aspalditik gertatzen ez zen zer bait.
- **Jarduera sentsorialak:** bost zentzumenak estimulatzeko diseinatutako dinamiketan, egoiliarrek eta familiak oroitzapen pertsonalak gogorarazten zituzten usainak, zaporeak eta testurak partekatu zituzten, lotura emozionalak uneak sortzeko.
- **Musika saioak:** abesti ezagunen eta melodia esanguratsuen bidez, emozio eta oroitzapen partekatuak berrakibatzen ziren; adibidez, biloba batek abestu zuen, garai bateko une familiarak birsortzeko.
- **Psikomotrizitatea:** biloba bat aitonaarekin jolastu zen, egoitzan sartu aurretik bion gozamenerako izaten zen jardueran. Horrelako ariketek familia konplizitateak berreskuratzea eta parte hartze aktiboa sustatzea ahalbidetu zuten.
- **Askari partekatuak:** janariaren inguruko topaketak, keinuak, begiradak eta konplizitatea bultzatu zituztenak, lotura afektiboak indartzeko, baita hizketarako zailtasunak zituzten egoiliarrengan ere.
- **Norbere burua zaintzeko espazioak:** egoiliarren zein familien ongizate emozionalera bideratutako jarduerak antolatu ziren, erlaxazioa eta topaketa bultzatuz, elkar zaintzeko ikuspegi batetik.

Aurkitutako zailtasunak eta aplikatutako irtenbideak

- **Hasieran parte hartze baxua:** familiekiko komunikazio zuzena indartu zen, saio malguagoetara motibatuz eta gonbidatzeko.
- **Familia batzuen etsipena** hurbilekoen mugak direla eta: laguntza emozionala eta oinarrizko formazioa eskaini ziren interakzioa interpretatzeko moduari buruz.
- **Muga funtzional eta kognitiboak:** materialak egokitu ziren (adibidez: ikusmen urrirako lupa, estimulazio sentsorialerako askotariko testurak dituzten objektuak).
- **Programaren jasagarritasuna:** erreferentziazko laguntzailea gizarte hezitzailearen eta psikologoaren dinamikan integratu zen, eta pixkana taldeko gainerakoengana zabaltzeko plangintza egin zen.

Taldeko kolaboratzaileak eta rolak

- **Gizarte hezitzailea:** jarduerak planifikatu eta dinamizatzea.
- **Psikologoa:** egokitzen kognitibo eta emozionalerako laguntza.
- **Erreferentziazko laguntzaileak:** laguntza hurbila saioetan zehar.
- **Familiak:** oroitzapen eta istorioen koprotagonistak eta emaileak.
- **Koordinazioa:** pilotuaren jarraipena eta ebaluazioa.

Ekimena baloratzeko irizpideak

- **Berrikuntza:** senideen bisita estimulazio eta laguntzako esperientzia egituratu bihurtzea.
- **Transferigarritasuna:** beste edozein egoiliar, senide eta/edo hurbilekoekin erreplika daitekeen praktika, metodologia argiarekin eta material eskuragarriekin.
- **Prebentzioa:** egoiliarrengan sentitzen den bakardadea eta inpaktu konduktuala murriztea.
- **Ebaluazioa eta emaitzak:** datu kuantitatiboak (parte hartzea, gogobetetzea) eta kualitatiboak (testigantzak, oharrak) egiaztatzen dute inpaktua.



3. EMAITZAK ETA INPAKTUA

Jardunbide egokiaren inplementazioak emaitza **neurgarri eta esanguratsuak** sortu ditu egoiliarren, familiengan, profesionalengan eta erakundean bertan. Lorpen horiek egiaztatzen dute jardunbidea **berritzailea, jasangarria eta transferigarria** dela.

Emaitzak egoiliarren

- **Parte hartze handiagoa jarduera esanguratsuetan:** batez besteko parte hartzea %70etik gorakoa izan zen, eta alde zuriatik pasibo egoten ziren egoiliar batzuk egokitutako dinamiketan sartu ziren.
- **Ongizate emozionala hobetzea:** irribarreak, kontaktu bisuala, konplizitate keinuak eta gozamen jokabideak ikusi ziren saioetan, eta behaketa fitxetan erregistratu ziren.
- **Jokabide disruptiboak murriztea:** jarduera partekatuetan eta ondoren asaldura edo suminkortasun gertakariak murriztea.
- **Nortasun pertsonalaren jarraitutasuna:** oroitzapen kutxak, abestiak eta objektu biografikoak erabiltzeak memoria suspertzea eta bizi historiarekiko konexioa indartzea ahalbidetu zuen.

Emaitzak senideengan eta/edo hurbilekoengan

- **Proiektuarekiko gogobetetze handia:** galdetegietan **5etik 4,3tik 5era** bitarteko batez besteko puntuazioak daude, erabilgarritasun, eduki, laguntza eta gogobetetze globalaren dimentsioetan.
- **Lotura afektiboa indartzea:** senideek hurbilekoengandik "gertuago" sentitzen zirela adierazi zuten, baita hitzezko komunikazioa mugatua zenean ere.
- **Etsipena eta ezintasun sentsazioa murriztea:** jarduera gidatuak izanik, familiek elkartu izanaz gozatzeko tresnak izan zituzten, arreta mugetan jarri gabe.
- **Elkarri laguntzeko sareak sortzea:** saioetan elkarrekin bizitzeari esker, zenbait egoiliarren senideek esperientziak eta aurre egiteko estrategiak partekatu zituzten.

Emaitzak profesionalengan

- **Biografien ezagutza handiagoa:** familia inplikazioari esker, profesionalek egoiliarren aurreko bizitzari buruzko informazio esanguratsua eskuratu zuten, Arreta eta Bizi Planak aberasteko.
- **Taldearen motibazioa eta kohesioa handitzea:** egoiliarren eta familiengan izandako eragin positiboak lanaren zentzuaren pertzepzioa indartu zuen.
- **Berrikuntza metodologia finkatzea:** langileek positiboki baloratu zuten saio egituratuak eguneroko zaintzarako tresna osagarri gisa integratzea.

Emaitzak antolamenduan

- **POAI eredia indartzea:** jardunbidea erakundearen ikuspegi orokorrean integratu zen, eta familia eta profesionalen arteko aliantza sendotu zen.
- **Aurreikusitako hedapena:** lortutako emaitzen ondoren, programa gainerako unitateetara hedatzea planifikatu da, egoitzako bizitzaren zati egonkor gisa finkatzeko helburuarekin.
- **Ebidentziasistematikoa:** erregistroak, kartelak eta galdetegiak erabiltzeak errepikagarritasunerako eta aitortza instituzionalerako oinarri sendoa eskaintzen du.

Inpaktua sektorean eta komunitatean

- **Berrikuntza errepikagarria:** proiektuak interesa piztu du **Lares** eta **Zahartzaroa** gisako sareetan, bere erraztasun metodologikoagatik eta familiengan duen inpaktuagatik.
- **Tratu onaren kulturarako ekarpena:** narriadura kognitibo handiko testuinguruetan ere esperientzia esanguratsuak sor daitezkeela erakusten du.
- **Komunitatera irekitzea:** jardunbideak Aspaldiko erakundeak espazio ireki gisa duen ikuspegia indartzen du, non familiek eta profesionalek zaintzaren ardura partekatzen duten.

**Inpaktuaren ondorioa**

Jardunbide egokiak agerian uzten du **familiak, laguntza eta orientazioa dutenean, pertsonalizaziorako eragile aktibo bihurtzen direla**. Emaizak argiak dira:

- Ongizate gehiago eta bakardade gutxiago egoiliarrengan.
- Gogobetetze eta konfiantza handiagoa familiengan.
- Profesional motibatuagoak eta informazio baliotsuagoarekin.
- Erakunde irekiagoa, berritzaileagoa eta POAI ereduarekin koherentea.

4. JARDUNBIDEAREN BALIO DIFERENTZIALARI BURUZKO ONDORIOAK

Jardunbideak **balio bereizgarria** erakusten du arlo hauetan:

- **Egoiliarrak:** loturak, identitatea eta ongizatea berreskuratzea narriadura kognitibo larria duten pertsonengan.
- **Zaintzaren ikuspegia:** familia protagonista dira, eta bisitak topaketa humanizatu bihurtzen dira.
- **Profesionalak eta antolamendua:** POAI aberastuak, talde motibatuak eta eredu jasangarri eta errepikagarria.
- **Sektorea eta lurraldea:** eskubideen eta tratu onaren aldeko konpromisoa, metodologia ebaluatu eta transferigarri batekin.

5. ONDORIOA

Proiektuak erakusten du zaintza pertsonalizatua narriadura kognitibo handiko testuinguruetan ere posible dela. Familiak laguntza eta tresna egokiak dituztenean, topaketek zentzua berreskuratzen dute, loturak indartzen dira eta egoiliarren ongizatea hobetzen dira.

Balio bereizgarria egoiliarren ongizate handiagoan islatzen da, senideen konfiantza handiagoan, profesional motibatuagoetan eta pertsonan oinarritutako erakunde berritzaile batean.